

# Topalekua

108 zk. 2021eko azaroa

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA  
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

GIZARTE KONTSEILUAK URRIAREN 27ko OSOKO BILKURAN AZTERTU ZUEN UPV/EHU LAN MUNDUTZEARI BURUZKO AZKEN TXOSTENA

## EHUko graduatuen %77 autonomia-erkidegoan bizi da eta lan egiten du

**UPV/EHUko ikasleen lan mundutzeari buruzko azken inkestak, 2017an unibertsitatean ikasketak amaitu dituen promoziora zuzendutakoak, adierazi du %77 autonomia-erkidegoan bizi dela eta lan egiten duela. Beste %13 Euskal Herrian bizi da eta kanpoan lan egiten du, %3 kanpoan bizi da eta Euskadin lan egiten du eta gainerako %7 EAetik kanpo bizi da eta lan egiten du.**

Euskal Herritik kanpo eta aipatutako inkestan jasotako mugikortasun geografikoaren arabera, graduatuen %10 beste eskualdeetan bizi da eta lan egiten du, eta %3 munduko zenbait herrialdetan.

Langabezia tasa ikasketak amaitu eta hiru urtera %12koa da, bi puntu gehiago aurreko promozioarekin alderatuta eta enplegu tasa %81eko da, 2016koa baino hiru puntu gutxiago. *'Ikasketak amaitu dituzten UPV/EHUko ikasleen lan mundutzeari buruzko txostena'* aurreko urriaren 27an aztertu zen, Bilbon ospatutako Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko osoko bilkuran.

Graduatuen batezbesteko asebetetzea enpleguarekin 10etik 7koa da, kontuan hartuta betetzen diren funtzioak, igoera aukerak, soldata eta lan-egonkortasuna. Grafikoan

zehazki ikus daiteke 2017ko promozioiko ikasleen lan-egoera. Lanbidek urteroko inkesta hau burutzen du 1997tik, EHUko Gizarte Kontseiluaren ekimenez. Titulazioa lortu eta hiru urtera burutzen du, uste baita denbora nahikoa dela karrera profesional bat bideratzeko sektore edo lanbide zehatz batentzat.


### Ezagutza-arlo nabarmenenak

Azkeneko edizioan, UPV/EHUko 2017ko graduoko promozioari dagokionean (hiru urte daramatzana lan-merkatuan), ondokoa nabarmentzekoa da jakintza-arloaren arabera:

- Osasun Zientziek %90ko enplegu tasa eta %5eko langabezia tasa dute.
- Irakaskuntza Teknikoek %88ko enplegu tasa eta %8ko langabezia tasa dute.
- Gizarte Zientziek %79ko enplegua eta %16ko langabezia dute.
- Zientzia Ekonomiko-Juridikoek %77ko enplegua eta %15eko langabezia dute.
- Zientzia Esperimentalek %73ko enplegua eta %15eko langabezia dute.
- Humanitateek %71eko enplegu tasa eta %20ko langabezia tasa dute.

Enplegua, UPV/EHUko ikasleek ikasitako espezialitate akademikoari lotuta, %95eko da Osasun Zientzietan eta Irakaskuntza Teknikoetan, %92koa Zientziak Esperimentaletan, %83koa Humanitateetan, %81ekoa Gizarte Zientzietan eta %69koa Zientzia Ekonomiko-Juridikotan.

### EGUNGO LAN EGOERA (2020ko ABENDUA)



**PERTSONA LANDUNAK JARDUTEN DIREN ENPRESAREN EKONOMIA-JARDUERAREN ADARRA**

Ekonomia-jardueren nazio-mailako sailkapena (cnae2009 a 2 digitu)

EKONOMIA-JARDUERA	%
Hezkuntza	20,6
Osasun jarduerak	15,0
Arkitektura eta ingeniariatzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak	6,3
Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak salbu	4,2
Ikerkuntza eta garapena	3,4
Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin uztarturiko beste jarduera batzuk	3,4
Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza	3,3
Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	3,0
Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak	2,6
Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen...	2,6
Finantza zerbitzuen eta aseguruen jarduera lagungarriak	2,4
Jaki eta edari zerbitzuak	2,3
Laguntza egoitza-establezimenduetan	2,2
Elkartegintzako jarduerak	1,8
Kirol, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	1,6
Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa	1,6
Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk	1,5
Egoitza nagusien jarduerak; enpresa kudeaketako aholkularitza jarduerak	1,4
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa salbu	1,3
Eraikinen eraikuntza	1,1
Publizitatea eta merkatu azterlanak	1,0
Eraikuntza espezializatuko jarduerak	1,0
Zinemako, bideo eta telebista saioretako jarduerak, soinu grabazioak eta musika ed...	0,9
Bulegoko administrazio jarduerak eta enpresentzako lagungarri diren beste jarduerak...	0,8
Beste garraio material baten fabrikazioa	0,8
Argitalpena	0,7
Material eta ekipu elektriko fabrikazioa	0,7
Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa	0,7
Biltegiatzea eta garraioarekin uztartutako jarduerak	0,6
Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatuen fabrikazioa	0,6
Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa	0,6
Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	0,6
Sormen, arte eta ekitaldi jarduerak	0,5
Botiken fabrikazioa	0,5
Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduerak batzuk	0,4
Zerbitzuak eraikintzako eta lorezaintzako jarduerak	0,4
Jarduerak higiezinekin	0,4
Finantza zerbitzuen eta aseguruen jarduera lagungarriak	0,4
Ostatu zerbitzuak	0,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	0,4

EKONOMIA-JARDUERA	%
Lurreko eta hodi-sare bidezko garraioa	0,4
Elikagaien industria	0,4
Enpleguarekin uztartutako jarduerak	0,3
Aseguruak, berraseguruak eta pentsio fondoak, derrigorrezko Gizarte Segurantza salbu	0,3
Posta zerbitzuak	0,3
Ingeniaritza zibila	0,3
Industria kimikoa	0,3
Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	0,3
Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	0,3
Beste zerbitzu pertsonal batzuk	0,2
Alokairu jarduerak	0,2
Telekomunikazioak	0,2
Irrati eta telebistako saiok programatu eta eskaintzeko jarduerak	0,2
Paperaren industria	0,2
Edarien fabrikazioa	0,2
Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa	0,2
Lurraldetik kanpoko erakundeen eta antolamenduen jarduerak	0,1
Etxeetako jarduerak etxeko lanak egiteko langileei lana emateko moduan	0,1
Zori jokoaren eta apustuen jarduerak	0,1
Segurtasun eta ikerketa jarduerak	0,1
Bidaia-agentzien, bidaia-agentzia handizkarien, erreserba zerbitzuen jarduerak eta ho...	0,1
Informazio zerbitzuak	0,1
Itsas garraioa eta barruko bide nabigarrietatik eginikoa	0,1
Deskontaminazio jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk	0,1
Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatu; balorizazioa	0,1
Hondakin urak hartu eta tratatzea	0,1
Ura hartu, araztu eta banatzea	0,1
Manufaktura beste industria batzuk	0,1
Altzarien fabrikazioa	0,1
Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak	0,1
Arte grafikokoak eta grabatutako euskarrien erreproduzioa	0,1
Eguraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik, otarregintza eta espertzugintza	0,1
Ehunen industria	0,1
Arrantza eta akuikultura	0,1
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak	0,1
Larriaren eta oinetakoen industria	0,0
Erauzteko beste industria batzuk	0,0
Basogintza eta baso ustiaketa	0,0
Aireko garraioa	0,0
Janzkiak egitea	0,0

Iturria: Lanbide

**1.590 euroko hileko batezbesteko soldata**

Lanaldi osoan lan egiten duten UPV/EHUko graduatuen hileko batezbesteko soldata garbia 1.590 eurokoa da, 14 ordainketekin. Zehazki, hauek dira soldatak jakintza-arloaren arabera txikienetik handienera: Osasun arloko Zientziak (1.858 euro), Teknikoak (1.591 euro), Sozialak (1.544 euro), Humanitateak (1.535 euro), Zientzia Ekonomiko-Juridikoak (1.460 euro) eta Zientzia Esperimentalak (1.371 euro).

2017ko promozio bide nagusia enplegua lortzeko inguru soziala eta profesionala da oraindik %25eko kuotarekin. Jarraian doaz oposizioak/ lan-poltsa publikoa (%21,1), eskaintza zehatz bati erantzutea (%15,6), CV aurkeztea / Enpleguzerbitzuan alta ematea (%13,3), unibertsitate ingurunea (%10,3), Unibertsitatearekin zerikusirik ez duten praktika edo bekak (%5,9), auto-enplegua/ ekintzaileak (%3,8), presatuntza osagarria (%3,7) eta besterik (%1,3).

**Reppe-ren eta Badalab-en parte hartzea**

Gai-zerrendako beste puntu batzuetan, Gizarte-Kontseiluko Osoko Bilkurak "baimena" eman zuen UPV/EHU-k parte hartu dezan Asociación para el Desarrollo del Prácticum y de las Prácticas Externas elkartearen: Red de Prácticum de España (REPPE) sarean. Entitate hori zenbait instituziok, erakundeak, irakasleak eta hainbat motako profesionalak osatzen dute. Gainera, Osoko Bilkurak UPV/EHUko parte-hartzea adostu zuen BADALAB hizkuntza berrikuntzarako partzuergoan. Gipuzkoako berrikuntza-laboretegi horren helburua da "erreferentziatzeko esperimendazio-gune" bihurtzea euskara suspertzeko eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko, bai nazio mailan zein nazioarte mailan.

Azkenik, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak informatikako eta irakaskuntzarako ekipamendutara zuzendutako gastu arrunteko aurrekontu aldaketa multzoa onartu zuen.

**INFOEMPLEO ADECCO TXOSTENA. 24. EDIZIOA**

JARRAIAN ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENBIDEA ETA INGENIARITZA MEKANIKOA DOAZ

# EAZ, Industria Ingeniaritza eta Erizaintza dira Euskadin gehien eskatzen diren titulazioak

**2020an, elkarren segidako seigarren urtez, Euskadi hirugarren postuan mantendu zen lan-eskaintzaren nazio-mailako rankinean, 2019rekin alderatuta bere pisua %0,59an murriztu arren. Osotasunaren %10,6rekin, Autonomia Erkidekoa Madrilen (%24) eta Kataluniaren (%21,2) atzetik dago, azken 'Informe Infoempleo Adecco' txostenaren arabera.**

'Informe Infoempleo Adecco' txostenaren 24. edizioak, 2020ra dagokionak, modu zehatzean jakitera eman du zein izan de Espainiako lan-eskaintzaren joera azken urtean zehar, "ziurgabetasunez" bete egin dena Covid-19k eragindako krisiaren ondorioz. Era berean, adierazi du zeintzuk diren enpresen eta hautagaien kezka eta interes nagusienak talentua eta lana bilatzean hurrenez hurren.

Probintzia-mailako banaketaz bezainbatean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba *Top-10*ean sartu dira enplegu gehien argitaratzen duten Espainiako probintzien artean. Bizkaia (%4,8) goren dagoena da eta hirugarren postua dauka rankinean, 2019rekin alderatuta hiru hamarren jaitsi arren; Madrilek eta Bartzelonak baino ez dute gainditzen. Gipuzkoa (%3,6) bosgarrena da, eta laugarren postutik alden du da, 2020an %0,4 jaitsi baita. Araba (%2,2) nazio-mailako lan-eskaintzan influentzia galdu ez duen euskal probintzia bakarra da eta bederatzigarren postuan mantendu da.

### Euskadiko lurralde-banaketa

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-banaketa bezainbatean, Bizkaia nabarmenena jarraitzen izaten du, eskaera osoaren %45,30 biltzen baitu. Atzetik Gipuzkoa (%33,82) eta Araba (%20,89) doaz.

Aipatutako txostenak adierazten du Euskadin industria sektoreak, lehenengo postua mantentzeaz gain, eskaintzaren %14,1ekin, 2019an galdutako bi puntuak berreskurtu dituela. Sektoreak eskaintza-ehuneko askoz handiagoa dauka Euskadin gainerako Estatuan baino, non batez bestekoa %8,2 den. Merkataritza bigarren lekuan dago (%8,95) eta Metala, Meatzaritza eta Burdingintza hirugarrenean (%7,40). Ondoren, Osasungintza (%5,83) eta Garraioa-Logistika (%4,76).

### Prestakuntza-maila eta ikasketa eskatuena

Euskadin, 2020an, lan-eskaintzetan eskatutako prestakuntza-mailaren %36,43 unibertsitate-tituluduna da; aurreko

urtean %42,31 izan zen. Goi-mailako heziketa zikloa %31,14 da, 2019an baino %1,46 gehiago. Erdi-mailako heziketa zikloa %16,94 da, Batxilergoa, BBB edo UBI %7,32 eta DBH edo Eskola-graduatuak %7,14. Masterra edo Graduondoa eskatzen duten lan-eskaintzak %1,04 dira.

2020an lan-eskaintza gehien jaso zituzten bost unibertsitate-titulazioak, Adeccoren txostenaren arabera, hauek izan ziren ordena honetan: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (%3,49), Industria Ingeniaritza (%3,04), Erizaintza (%1,66), Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (%1,51) eta Ingeniaritza Mekanikoa (%1,29). Beherago, Medikuntza eta Biomedikuntza daude, besteak beste (ikusi taula).

### LAN-ESKAINZTA UNIBERTSITATE TITULUDUNENTZAT

Unibertsitate-titulazioa	Euskadi 2020
	2020% Lan-eskaintza guztiengan
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza	3,49
Industria Ingeniaritza	3,04
Erizaintza	1,66
Enpresen Administrazioa eta Zuzenbidea	1,51
Ingeniaritza Mekanikoa	1,29
Medikuntza eta Biomedikuntza	1,06
Laneko Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak	0,99
Informatika Ingeniaritza	0,97
Merkataritza eta Marketina	0,71
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza	0,69
Telekomunikazio ingeniaritza	0,52
Ingeniaritza Elektrikoa	0,51
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza	0,48
Ingeniaritza Elektromekanikoa	0,40
Arkitektura	0,35
Zuzenbidea	0,30
Hezikuntza eta Pedagogia	0,30
Ekonomia	0,26
Fisioterapia	0,25
Ostalaritza eta Turismoa	0,25
Industria Diseinuaren Ingeniaritza	0,18
Matematikak eta Estatistika	0,18
Ingeniaritza Kimikoa	0,15
Ingeniaritza Aeronautikoa / Aeroespaziala	0,14
Kimika	0,12
Unibertsitate-titulazio mota zehaztugabea	14,98
Beste titulazioa batzuk	1,64

### LAN-ESKAINZETAN ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA-MAILA

Prestakuntza-maila	Euskadi		Espainia
	2020	2019	2020
DBH edo Eskola-graduatuak	%7,14	%5,45	%11,58
Batzilergoa, BBB edo UBI	%7,32	%5,60	%11,52
Erdi-mailako heziketa zikloa	%16,94	%14,72	%18,56
Goi-mailako heziketa zikloa	%31,14	%29,68	%22,76
Unibertsitate-titulazioa	%36,43	%42,31	%33,72
Masterra edo Graduondoa	%1,04	%2,25	%1,86

ADECCO-K GALDETUTAKOEN %75EK USTE DU ENPRESETAN PRAKTIKAK SUSTATU BEHARKO LITZATEKEELA

## 10 gazteetatik 8k uste dute lan eskakizunak zorrotzeziak direla titulatu berrientzat

**'Adecco'-k galdeketa bat burutu du 4.700 gazte baino gehiagoren artean zera ezagutzeko: zeintzuk diren euren itzaropenak etorkizunera begira eta euren ustez Unibertsitateak zein paper izan lezakeen euren laneratzean. Ondorioz, adierazi du galdetutako %83,1ek uste duela merkatuaren eskakizunak ikasketak amaitu ondoren zorrotzeziak direla.**

Adecco-k burututako galdeketa adierazi du lau gazteetatik hiruk uste dutela Unibertsitateak enpresetan praktikak egitea sustatu beharko lukeela euren ikasketak egin bitartean. Galdetuen ia erdiak uste du beharrezkoa litzatekela lana bilatzeko aholkularitza eta lan-orientazio handiagoa egotea. Era berean, %48,7k uste du trebetasun bigunak ikastea sustatu beharko litzatekela, komunikazioarekin, nortasunaren ezaugarriekin, jarrerekin, adimen sozial eta emozionalarekin... lotuta daudenak. Gainera, galdetutako neska-mutilen %25,7k uste du egokia litzatekela jakintza teoriko gehiago irakastea, enpresen benetako beharrek bat datozenak.

### Ziurgabetasunez betea dagoen lan-merkatua

Ikasketak amaitzean, euren lan mundutzea nola ikusten duten galderaren aurrean, galdetutako gazteen %43k uste du erraza izango ez dela. %29,1ek aitortu du ziurgabetasun handiak dituela urrats horren aurrean, baina uste duela aurre egiteko gai izango dela unea heltzean. %19k baino ez du aitortu une erraz gisa ikusten duela eta ziurtatzen du buruhausterik ez dela. Gainerako %8,9k beste aukerak kontuan hartu ditu eta, besteak beste, azaldu du ez duela uste ikasitakoaz lan egiteko aukera izango dutela, lehenengo lana lortzeko eskakizun ugari eskatzen dituztela eta gradu batekin bakarrik nahikoa izango ez dela. Galdetutako talde horrek uste du espezializatu behar direla eta, eremu geografikoaren arabera, lan mundutzea zailagoa edo errazagoa izango dela. Zentzu horretan, neska-mutilen %83,1ek uste du lan-merkatuko eskakizunak zorrotzeziak direla, ordea, %16,9k ez du horrela ikusten.

'Adecco'-ren txostenean parte hartu duten gazteen %77,3k uste du lana aurkitzen gehien lagunduko dion faktore bereizgarria zera izango dela: teknologien erabi-

lera aurreratua, hizkuntza ezagutzea (%69,6), 'soft skills' deiturikoak, komunikazio-gaitasuna eta adimen emozionala adibidez, menperatzea (%60,1). %16k baino ez garrantzia ematen dio Unibertsitatean lortutako notei.

### Lan idealaren bila

Euren lana idealaz bezainbatean, galdetutako gazteen %39,4k baieztatu du gustuko duen eta profesional bezala bere burua garatzeko aukera ematen duen hori izango litzatekela, %37k uste du lana eta familia bateragarri egiteko aukerak ematen dizkiona izango litzatekela eta gainerako %23,6k baino ez uste du euren burua garatzeko moduko soldata duena izango litzatekela.

Lan-etorkizuna hautatzeari begira, hiru gazteetatik batak aitortzen du ez duela aholkurik jaso lan-irteeren edo lana bilatzearen inguruan. %32,7k dio informazio hori jaso duela bere ingurune gertuenean (senideak, lagunak, lan egiten duten ezagunak...) eta %19k azaldu du ikasketa zentrotik kanpo jaso duela aholkua (hitzaldietan, ikastarotan edo jardunalditan). Bakarrik ikasleen %11,9k aitortzen du bere lan etorkizunaren inguruko aholkularitza eta orientazioa jaso duela bere zentro akademikoan, bai tutoreen edo irakasleen bidez (%5,8) bai horretarako bereziki sortutako hitzaldien edo presaktuntzen bidez (%6,1).

Ikuspuntu geografikoari dagokionez, gazteei galdetu zaie euren ustez lana Espainian burutu ahalik duen edo urte batzuek emigratu beharko duten profesionalki hazi ahal izateko. Horretaz bezainbatean, %63,6 ziur da gure herrialdean lan egingo duela, %19,1ek uste du kanpora joango dela eta gainerako %17,3k uste du agian lehenengo urteetan atzerrian lan egin beharko duela lan-esperientzia lortzeko, ondoren Espainian lan egiteko aukera izan dezan.

### NEURRI HAUEN ARTEAN ZEIN USTE DUZU UNIBERTSITATEAK GARATU BEHAR DUELA GAZTEEN LAN MUNDUTZEA HOBETZEKO? HAINBAT AUKERA HAUTATU DAITEZKE

